ASTEKARIA - 2008ko otsailaren 15ean - XII. urtea - Usurbil, 312. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Igande honetan, Zarautz eta Zumaia arteko mendi ibilaldia



Itziar Basterrika, EHAKko parlamentari zubietarra

## “Herri honetarako dugun planteamendua ez digute aurrera eramaten utzi nahi”

# Tapak eta aurkibideak prest




**Agur esan diogu 2007 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2007ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Albistea iruditan

# Suspentsioa salatzeko elkarretaratzea

EAE-ANV eta EHAKren aurka abian diren ilegalizazio prozesuak salatzeko, elkarretaratze eta manifestazio jendetsu eta zaratatsua egin ziren pasa den otsailaren 8an kaxkoan, "Independentzia aurrera, Euskal Herria kalera" lemapean. Salatzeko antolatu diren ekitaldi sortan lehena izan zen. Asteburuko kotxe karabanarekin eta Bilboko manifestazio nazionalarekin batera, asteazkenean, otsailaren 13an ez ohiko eta premiazko udalbatza plenoa egin zen. Ostegun honetarako greba eguna deituta dago, deitzaileen esanetan, "salbuespen egoera salatu eta independentziari eta marko demokratikoari baietza esateko".




IRUDIAN, ABIAN DIREN ILEGALIZAZIO PROZESUAK SALATZEKO PASA DEN OTSAILAREN 8AN EGIN ZEN MANIFESTAZIO ZARATATSUA.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

USURBILI BURUZKO DVD PROIEKZIOA — 5. OR.
UNAI LATAILLADEREN SOLASEAN — 6. OR.
SAHARAREN ALDEKO KARABANA — 8. OR.
ITZIAR BASTERRIKA PARLAMENTARIA — 10. OR.
HAUTESKUNDEAK LUZURIAGAN — 12. OR.
DBH MAILAKOAK, ARALARREN — 14. OR.
HERNANIKO KIROLDEGIAREN AFERA — 15. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!
EUSKARAZ
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

# Gertakari beltzen urteurrenak

Gertakari ilunen urteurren "borobil" horietakoak ditugu aurten. Uztailean Egin egunkaria eta Egin irratia itxi zituztenetik hamar urte beteko dira. Gertuago, otsailaren 20 honetan, bost urte beteko dira Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Itxierak eta noski, atxiloketak, tortura salaketak, sufrimendua haientzat eta haien senideentzat... 18/98 sumariotzar horretan epaitu zituzten Egineko hainbat langile. Egunkariakoak auzibidean dira.

Berriako webgunean sartzeko ohitura duzuenok, honako tartea aurkituko duzue goiburu honekin; "munduan libre bizi ahal izateko, Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko. Egunkaria libre!". Egunkariaren Alde Elkartearen txokoa da aipaturikoa eta berria.info atariko loturen artean dago.

Atari interesgarria, 2003ko otsailaren 20ko egun beltz hartatik hona gertatutakoa oroitzeko. Azken egunetako albisteetako bat, Egunkariako langile ohiek egindako batzarra izan da. Auzipetuei babesa agertu eta urteurrena gainean izanda, antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera deitzen dute. Haien hamabi lankide eta lagunak epaituak izateko zain direla gogoratzearekin batera, argi diote zein den egindako "huts egite" bakarra: "euskarazko egunkari bat sortu eta bultzatzea izan zen gure delitu bakarra". Baina beste behin, arrazoi nahikoa iruditzen zaie batzuei auzitegietara eramateko. Alderdiak, haien ordezkariak, boto emaileak, komunikabideak... isilarazten tematu dira azken urte luzeetan. Baina ez dute isiltasunik lortu. Noiz arte, zentzurik ez duten atxikoketak, epaiketak, kartzelaratzeak eta abar luzea? Galdera baino okerragoa da erantzuna, nire ikuspegitik behintzat; ez baitakit. Eta oraindik larriagoa dena, egoerak beti egin dezake okerrera, jada dena libre izanda, mugarik ez baitute. Eta lotsa gutxirekin, haien jarrera arrazoitzeko gai dira oraindik!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - **Aritz Gorriti** - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

# Etxebizitzak eta herria

Azkeneko urteetan gure herrian etxebizitzaren kopurua handitu egin da, eta usurbildarrak eta etorri berriak ekipamenduak eskatzen dute eta hala: ikastolan epe motzean lekurik ez, haurtzandegian berdin, kiroldegia ia hankaz gora, liburutegian tankeran, eta hau Udalaren erru borobila da.

Azkeneko Udalak 1000 etxebizitza programatuak jarri ditu hauen artean. Gure gazteak lepotik zintzilika banko baten menpean geratzea behartuak daude. Prezioak harrigarriak dira, apartamendu bat erosi (86.000 euro) kaskoan eta jubilatu arte bankoari dirua ordaintzen. Hau ez da justua.

Beste gauza aipatu behar dena kolpe honekin Olarriondo eta Ugarteko etxebizitzak egiten badira, ordeka lurrak agortu egiten dira eta mendi maldetan eraikitzen hasi beharra, eta gainera etxebizitza hauek ez dira izango usurbildarrentzat, baizik edozeinentzat.

Plan hau burutzeak soziologikoki herriaren aldaketa nabarmena ekarriko du. Siadeco taldeak horrelako ikerketa bat 1979an egin zuen eta gure herriko Udalak (alkate eta zinegotzi) beldurtu egin ziren, eta plan handi hura, Lasarteko (maketa Udaletxeko ganbaran jasota dago) Zumaburu auzoaren kopia, Urbarte tankerakoa zorionez baztertua geratu zen. Europako buruzagiek gizon emakume klonikoak nahi dituzte.

Olarriondo-Ugarteko proiektuak Uraren Lege eta Araudia puskatzen du, hain erraz ezin da erreka txikitu.

Bukatzeko: zein legek debekatzen du, etxebizitza guztiak babestuak edo prezio tasatuarekin eraikitzea? Edo zein legek debekatzen du guztiak alkilatzeko etxebizitzat egitea? Eraikitzaleak aberastunagusitu eta herritarrak pobre eta zordun?

Ezin dena gure gazteei halako lepokoa kolkoan jarri bere bizitza guztirako, guk orain dela 20 urte zintzilikatuak egon ginen bezala baina soldata erdia bankoari ordaintzen eta %17ko interesa ordaintzen genuen, eta orain soldata osoa 40 urterako % 5 interesa.

Espero dut pentsamendu hauekin gaurko Udalak, alkate eta zinegotzi, norabide honetan balazta erabiliko duela, herritarren gehiengoaren izenean.

**Manu Aranburu, Ekologista Taldea**







# Ostiral honetan jarriko da salgai Usurbil eta usurbildarren inguruko DVDa

**Usurbil eta usurbildarrak, garai batekoak eta oraingoak, koadrilak, ikasleak, sendiak, jaietako argazkiak... Herriaren seirehun urteko historiaren errepaso bat ematen du Nafartarrak Kultur Taldeak irudi eta bideo baten bidez osatu duen DVD-ak. Iaz proiektatu zuten lehen aldiz. Izandako harrera tarteko, proiekzioa errepikatuko dute ostiral honetan, otsailak 15, 22:30etan Sutegin.**



NAFARTARRAK KULTUR TALDEAK DVD BATEAN IRUDI BILDUMA OSATU ETA HERRIKO HISTORIAREN ERREPASOA EGIN DU.

Bilintx bonbardaketa batek Arratzainen harrapatu eta heriotzzauria eragin zionekoa, Santa Kruzko apaizaren ihesaldia, Pirinioetako azken harrespilak, Udarregi eta Atxega sendiaren bizitza eta eragina... Usurbilgo pasarte historiko asko irudikatzen dituzte, berriagoak diren beste hainbatek bezala. Nafartarrak Kultur Taldeak DVD batean irudi bilduma egin eta herriko historiaren errepasoa egiten du. Pisu handia dute, noski, gaurko eta atzoko herriak eta herritarrek. Gaurko eta atzoko Usurbilek eta usurbildarrek. DVD-a iaz eskaini zuten lehen aldiz. Otsailaren 15ean, Nafartarrak-en lana ezagutzeko bigarren aukera Sutegin, 22:30etan.

### Salgai, ostiraletik aurrera

Proiekzioa Sutegin bakarrik ez, norberak etxean ere ikus dezake. Hain zuzen, egun horretan bertan, DVD-a salgai jarriko baitute 5 eurotan Sutegin. Hortik aurrera, zenbait saltokitan ere eskuragarri izango da.

## 1971ko bideo bat jasotzen da DVDan

Usurbilek herri izaera "ofiziala" eskuratu zueneko seirehun urte bete ziren 1971.urtean. Iaz ikusi ahal izan zen lehen aldiz, seigarren mendeurrena ospatzeko grabatu zen bideoa. Udal ordezkariak meza saioan, dantzariekin batera herriko kaleetatik egin zuten ibilaldia, orduko Kalezaharren eta Udaleko balkoitik hiru bertsolari ezagunek botatako bertsoak... Eta urte haietako adin guztietako usurbildarrak ageri dira aipatu ikus-entzunezkoan.

### Aspaldiko grabazioa

Kuriosoa da, gaur egun bideoak grabatu eta ikusi daitezkeen arren, garai hartan ez ziren ugariak horrelako grabazioak egin eta izatea. Eta esan bezala, 70eko hamarkada hasieran herrian egindako grabazio bat dago Nafartarrak-en DVD-an. Iazko proiekziora arte herri mailan erakutsi gabekoa. Eta hilaren 15ean, emanaldian 5 eurotan salgai izango dena.



BIDEOAN HIRU BERTSOLARI AZALTZEN DIRA KANTARI, UDALETXEKO BALKOIAN. ESPAINIAKO BANDERA DAGO ZINTZILIK.

### Nafartarrak taldeak antolatutako ekitaldiak

**Otsailak 15, ostirala**

22:30ean, "Usurbilgo pasarte historikoak". Usurbili buruzko DVD proiekzioa Sutegin. Iraupena: 55 minutu. Egun horretan, DVDa salgai 5 eurotan.

**Otsailak 29, ostirala**

22:30ean, "Loreak mendian, hondakinak lurpean eta bideak gainean" antzezlana Sutegin. Mattin Irigoienek zuzendutako obra. Transgenikoak, 2x2 autobia… hizpide dituen antzerkia.

## Unai Lataillade, soin heziketako irakaslea

# “Gaur egun, soin heziketako gutxieneko orduak ez dira betetzen”

**Pasa den otsailaren 11n, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako soin heziketako irakasleek, horietako asko SOHAT-en (Soin Heziketaren Aldeko Taldea) bilduak, greba eguna izan zuten. Ikastetxeek soin heziketan eskaini beharreko gutxieneko ordu kopurua murriztea planteatu baitu Eusko Jaurlaritzak. Eta neurri horrekin, zientzien eta hizkuntzen alorrak indartu. Horren aurka agertzeko, aste hasieran Gasteizen bildu ziren grebarekin bat egin zuten irakasle, ikasle, guraso, kirolari edota sendagileak. Udarregi ikastolako soin heziketako irakasle Unai Latailladek xehetasun gehiago.**



UDARREGI IKASTOLAKO SOIN HEZIKETAKO IRAKASLEEK ERE GREBA EGUNAREKIN BAT EGIN ZUTEN OTSAILAREN 11N.

**NOAUA. %40ko ordu murrizketa planteatzen da Soin Heziketan?**

**Unai Lataillade.** Bai. Beste errealitate bat ere bada; gaur egun jarriak dauden gutxienekoak ere ez dira betetzen ikastetxe gehienetan. Ez dute zertan jaitsi gorputz heziketako ordu kopurua. Errealitateak esaten digu, gaur egungo gutxienekoak ez direla betetzen. Gutxieneko horiek jaitsita, are gehiago murriztera joko da.

> **UNAI LATAILLADE**
> “Prozesu honetan guztian, ez dute eseri, entzun edota eztabaidarako jarrera izan”

**N. Hezkuntza Sailburuak aipatzen du, ikastetxeek dutela neurri hori aplikatzeko autonomia?**

**U. L.** Bestalde, kurrikulum berri honetan Eusko Jaurlaritzak ordu kopuru bat jarri nahi izan du; autonomia ematea ikastetxe bakoitzari erabakitzeko zer potentziatu nahi duen, dauden errealitate ezberdinen arabera. Ikastetxeei autonomia ordu batzuk ematea zentzuzkoa da, baina autonomia ordu horiek soin heziketatik bakarrik atera dituzte.

Prozesu honetan guztian ez dute eseri, entzun edota eztabaidarako jarrera izan. Gure taldea Hezkuntza Sailekoen atzetik ibili da, zer ikuspegi duten jakiteko. Urtarrilean biltzea lortu zuten, eta Hezkuntza Sailekoek iritziz aldatzeko inolako asmorik ez zutela argi esan zuten. Azken egunetan, Gobernutik ikastetxeetara deika aritu dira, greba egin behar ote genuen galdezka, klaseak bertan behera utzi ote ditugun jakin nahian.

**N. Nondik dator murrizketa asmoa?**

**U. L.** PISA txostenaren haritik dator. Europako herrialde ezberdinetako hezkuntza sistemen arteko alderaketa bat egiten da bertan. Txosten horren arabera, antza denez, matematika eta hizkuntzen alorrean emaitza txarragoak atera dira hemen, beste leku batzuetan baino. Konparaketa hori kontuan hartuta, arlo horiek indartu nahi dituzte. Eta nondik kendu? Murrizketa gorputz hezkuntzari orduak kenduta egin nahi dute. Baina murrizketak arlo guztietakoa behar luke. Hala ere, alor honetan, Europa mailatik kontrako asmoak datoz. Europar Parlamentutik gorputz heziketa indartu behar dela diote, osasun arazo asko prebenitzeko mailarik onena kirol jarduera fisikoak sustatzea dela uste baitute.

**N. Osasun arazo horiek ere hemen prebenitu behar dira?**

**U. L.** Kontraesanetan erortzen dira. Soin heziketa orduak kentzen dira, baina osasun zerbitzuetan kristoren gastua egiten da. Gaixotu

baino lehen, ahalik eta gutxien gaixotzea landu beharko da. Neurri hau kontrako norabidean doa.

**N. Nola ikusten duzue etorkizuna?**

**U. L.** Astelehenekoa, PPk sartutako emendakin baten inguruko eztabaida izan behar zuen. Nik positibotzat jotzen dut jendea mugitzen ari dela ikustea. Dena den, komunikabideetan gaiak ez du beharko genukeen oihartzuna. Errealitatean, alderdi politikoek erabaki behar dute. Baina ez dugu etsi behar.

**N. Kurrikulum dokumentua bera ezerezean geratzen dela diozue. Zer dio dokumentu horrek soin heziketaz?**

**U. L.** Kurrikulumean jarritako ordutegia murriztu dute. Eta aldi berean, kurrikulumean aipatu eta eman behar ditugun konpetentzi eta edukiak gehitu dituzte. Kontraesan nabarmena da. Ezingo genuke kurrikulum hori bete, inondik inora. Kurrikulum hau betetzeko ere gehitu beharko lukete ordu kopurua. Ditugunekin ere ez ginateke iritsiko.

UNAI LATAILLADE

"Ordutegia murriztu dute. Eta aldi berean, eman beharreko konpetentzi eta edukiak gehitu"

**N. Hezkuntzaren alorrean, soin heziketari behar besteko garrantzia ez zaio ematen ezta?**

**U. L.** Neurri batean ondo etorri da hau guztia, jendea kontzientzia dadin, gorputz heziketa ez dela ondo pasatzeko arlo hori. Nik uste gizartea ez dagoela behar den bezala kontzientziatuta, zenbateko garrantzia duen gorputzaren benetako lanketa batek. Norbere burua hobeto ezagutu, emozioak ondo landu, emozio ezberdinak garatu, identifikatzen eta bideratzen ikasten laguntzen du soin heziketak. Azkenean, haurraren heziketa integrala lortzen da, gorputz heziketaren bidez. Askotan gelaren itxitasun horretan ematen ez dena, harreman mailan. Horrek guztiak izugarrizko transferentzia du eguneroko bizitzara. Benetako heziketara. Baina ez da ikusten.

**N. Izenean bertan ere nabari da. Gimnasia deitzen zaio arloari, gorputz hezkuntza deitu beharrean?**

**U. L.** Izenetik hasita. Gimnasia kirol konkretu bati dagokion arlo bat da. Soin heziketa, gorputzaren heziketa integrala da. Hor dena sartzen da; burua, gorputza, adimena, emozioak, harremanak… Soina dena da, ez gorputza bakarrik; autokontrola, autoestimua, harremanak... Haurrek gainera ondo pasatzen dute, eta hori geure alde dugu.

ARITZ GORRITI

# Protesta ekitaldia Eusko Legebiltzarrean

Soin Heziketako gutxieneko ordu kopurua murriztu edo ez? Galdera horri erantzun behar zioten pasa den otsailaren 11n, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean bildu behar zuten ordezkari politikoek. Eztabaidatzekoa zen emendakinak, ikastetxeetan soin heziketako klase orduak murrizteko asmoa du. %40raino gutxitu daiteke aipatu arloari eskainitako denbora. Galdutako ordu horien ordez, zientzien eta hizkuntzen arloak indartzearen aldeko apustua egin nahi da. Dekretua onartuko balute, datorren 2008-09 ikasturtean indarrean sartuko litzateke.




EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SOINKETA IRAKASLEAK PROTESTAN, AURREKO ASTELEHENEAN.

Baina Legebiltzarreko bilkura bertan behera utzi zuten, emendakina aurkeztu behar zuen PPko ordezkaria gaixo zegoela argudiatuta.

## 75.000 sinadura

Eztabaida hasi behar zuen unean, kanpoan irakasleak, ikasleak, gurasoak, kirolariak, sindikatuak… bildu ziren. Hain zuzen, dekretu horren aurkako greba eguna deitua zuten, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako soin heziketako irakasleek. Planteatzen ari den neurri horren aurka jasotako 75.000 sinadura entregatu zituzten Eusko Jaurlaritzan. Gero, manifestaldian abiatu ziren eztabaida guneraino, Legebiltzarreraino. Kaleratu duten oharrean, argi diote: "erabaki horiekin, gure arloaren duintasuna, funtzioa eta gure lana bera ere kolokan jarri dira". Ikastetxeei eman nahi zaien autonomia mailarekin, gutxieneko horiek bete ez eta ordu kopuruak beherantz joko duela ohartarazten dute. Udarregi ikastolako soin heziketako irakasleek eta alor horretan lanean dabiltzan beste zenbait herritarrek bat egin zuten greba egunarekin.

# Aste honetan abiatuko da Sahararen aldeko euskal karabana

**Eguberriak pasa eta orduantxe hasi ohi da Saharako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina. Ordutik hona bildutako elikagaiak eta osasungaiak larunbat honetan eramango dituzte Tindoufeko (Aljeria) kanpaldietara. Usurbilen, aurten, 950 kilo bildu dira. Usurbilgo Udalak, bestetik, 3.000 euroko dirulaguntza eman du.**

Iaz baino gutxiago bildu da aurten Usurbilen. Hala aitortu digu Luisma Lopez usurbildarrak, kanpaina honen koordinatzailea Gipuzkoan. 950 kilo izan dira 2008an jaso zirenak, iaz 1.000 kilotik pasa zen bildutakoa.

Luisma Lopezen esanetan, "ekonomia ez dago egoera onenean eta horrek eragina izan du aurtengo bilketan". Beste herri batzuetan ere, antzekoa gertatu omen da.

## Bilbotik Saharara

Dena den, jaitsiera ez da hainbesterakoa izan. Luisma Lopezek adierazi digunez, "makal samar hasi zen bilketa eta azken asteetan egin zen elikagaien bilketa handiena".

Usurbilen nahiz Euskal Herrian bildutako guztiarekin osatuko da Saharараino iritsiko den karabana, larunbat honetan Bilbotik abiatuko dena. 24 izango dira ibilgailuak, horietatik 12 trailerrak.

## Udalak 3.000 euro eman ditu

Luisma Lopezek eskerrak eman nahi dizkie herritar denei. Eta bereziki Dia, Aliprox, Aginagako Eiza, Aritzeta saltokiei eta Udarregi ikastolari.

Udalak, beste urte batzuetan egin bezalaxe, 3.000 euroko dirulaguntza eman dio ekimen honi.



IAZ BAINO GUTXIAGO BILDU DA AURTENGO KANPAINAN.

# Zarautz eta Zumaia arteko mendi ibilaldia osatuko du igande honetan Udarregi Mendi Taldeak

Ikastolako guraso batzuen ekimenez osatu zen Udarregi Mendi Taldea. Igande honetan, beste irteera bat egingo dute. Zarautz eta Zumaia arteko ibilaldia osatuko dute.

Goizeko 8:50ean abiatuko dira Usurbilgo tren geltokitik. Zarautzera bitarteko joan etorria, trenez egingo da. Goizeko mendi buelta izango denez, eguerdirako etxean izango dira. Beraz, mendi martxa honetan parte hartu nahi duenak erraza dauka, igandean goizeko 8:50ean tren geltokira hurbildu dadila.



IRUDIAN DITUZUE AZKEN IBILALDIKO PARTEHARTZAILEAK.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**
**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**
*Kale Nagusia, 2 1.C4* *20170*
*Tlf* ***943 37 08 78*** *USURBIL*

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

# “Usurbil herria, haurren laguna?”

## Joxe Ramon Mauduitek hitzaldia eskainiko du datorren astean Sutegin

**Otsailaren 20an asteazkena, hitzaldi interesgarri baten lekuko izango da Sutegi Kultur Etxea. Gaia, izenburuan aipatu duguna: “Usurbil herria, haurren laguna?”. Hizlaria, Joxe Ramon Mauduit, Haur Eskolarekin maiz lan egin duen psikoterapeuta.**

Orain dela hilabete batzuk, herri honetako ama batzuei inkesta bat egin zitzaien. Haurdunaldiaren inguruko galdeketa izan zen. Datorren asteazkenean, hilak 20, inkesta honen emaitzak aztertuko dira. Baina inkesta horretatik haratago doa hitzaldiaren helburua. Haurren heziketan denok gara eragingarri, etxekoak, instituzioak, profesionalak... Eta hitzaldia denei zuzenduta dago. Herri mailan denen artean nola lan egin daitekeen aztertuko da.

### Hezitzaileen lan ona

Joxe Ramon Mauduit adituaren ustez, Kalezarren dagoen Haur Eskolako hezitzaileak lan ona egiten ari dira. Haurrekin, gurasoekin eta baita lankideen artean ere.

Joxe Ramon Mauduiten ustez, “Usurbilgo hezitzaileek urteak daramatzate egokitzapen on bat lortzeko baliabideak martxan jartzen, eta haurrentzako eta beren etorkizunerako ondorio txarrenetako bat saihesten: hau da, gurasoekiko haustura emozionala, eta horrek haurrak bere buruarekiko eta bizi behar duten munduarekiko egokitzen izango dituen ondorioak saihesten. Ikerketa askok agerian utzi dute garai horretan emozioa oso hauskorra dela”.

Bide horretan aurrera egiten jarraitzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko, “guztion ardura” izan behar duela uste du Joxe Ramon Mauduitek, datorren asteko hitzaldia eskainiko duen adituak.

### Guztion inplikazioa

Horregatik, garrantzitsutzat jo du instituzioen, haurren guraso eta senideen nahiz irakasle eta profesionalen inplikazioa. Hitzaldia, otsailaren 20an asteazkena egingo da, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.



JOXE RAMON MAUDUIT, HITZALDIA ESKAINIKO DUEN ADITUA.

# Errausketaren aurkako bertso-afaria Araeta jatetxean

Zubietako Araeta jatetxean errausketaren aurkako bertso-afaria egingo da datorren otsailaren 23an. 20:30etan hasiko den ekitaldian, Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariek parte hartuko dute. Aurretik, hitzaldia izango da 19:00etan Zubietako lokalean.

Bertso afarirako txartelak salgai dira 30 eurotan (12 urtera arteko haurrek 15 eurotan). Txiribogan, Bentan, Ardi Beltzen eta Barazarren eskura daitezke. Txartelak lortzeko azken eguna, otsailak 18.



ANDONI EGAÑA ETA AMETS ARZALLUS ARITUKO DIRA KANTUAN.

## Eskulan tailerra Aginagan

Aginagako Antxomolantxa elkarteak eskulan tailerra martxan jarria du. Baina izena emateko epea zabaldu du berriz. Tailerrean parte hartu nahi dutenek informazio gehiago eskura dezakete 650 692 458 zenbakian (Aingeru). Klaseak ostiralero izango dira, 17:00-18:30 artean.

## 1979ko kinto bazkaria

1979an jaio zirenak sagardotegian biltzeko asmoa dute. Martxoaren 1ean egingo da bilkura, Saizarrenean. Eguerdiko 14:00etan hasiko da bazkaria. Izena emateko aukera dago Txiriboga tabernan. Otsailaren 28an amaituko da izena emateko epea.

## Itziar Basterrika, EHAKko parlamentaria

# "Argi dago ez gaudela estatu demokratiko batean"

**Otsailak 8 ostirala. Eguerdiko 14:00etan, irratian albistea: "Baltasar Garzon epaileak EAE-ANVren eta EHAKren jarduerak hiru urtez etetea agindu du". Eusko Legebiltzarrean bilkura eguna da. Eguerdiko 15:00etan, telefonoaren bestaldetik, Itziar Basterrika gure deiari erantzunez: "Gasteiztik ateratzen ari naiz oraintxe, etxean zerbait jan eta 17:00etarako NOAUAn naiz". Kazetari izan garen denbora honetan guztian, halako prestutasunik gutxitan aurkitu dugu politikari batengan. Garaiak zailak diren arren, zubietar honek ez du lanerako grina galdu. Bere solasaldian, itxaropena kutsatzen duen horietakoa da gainera. Bizi ditugun garai hauetan, ez da gutxi.**



IRAKASLEA OGIBIDEZ, AZKEN URTEAK EUSKO LEGEBILTZARREAN EGIN DITU, EHAKREN IZENEAN PARLAMENTARI HAUTATU ZUTENETIK.

**NOAUA. Auzitegi Nazionalaren aginduz, EAE-ANV eta EHAK alderdien jarduerak eten egingo dira gutxienez hiru urtez. Azken egunotako zurrunbiloa eta gero, bestelako erabakirik espero al zenuten?**

**Itziar Basterrika, EHAK.** Iragarritako kontua izan da. Bagenekien horrelako zerbait gerta zitekeela. Erabaki politiko bati mozorroa ipini diote, juridikoki irtenbide bat eman ahal izateko.

**N. Eusko Legebiltzarreko legealdia amaitzeko beste urtebete geratzen da. Hauteskunde berri batzuen aurrean, ezingo zenukete berriz aurkeztu.**

**I. B.** Teorian, Ibarretxeren galdekizuna eta gero hauteskunde prozesua etorriko balitz, ez, ezingo genuke aurkeztu.

**N. Gaur (otsailak 8 ostirala), hain juxtu, ilegalizazioaren aurkako ez-legezko proposamena aurkeztu duzue Eusko Legebiltzarrean.**

**I. B.** Azken aste hauetan esan dugun bezala, zerbait egitekotan ilegalizazioa eman aurretik egin behar zen. Ilegalizazioaren aurka bagaude, aurretik egin behar dela zerbait eta ez ondoren, ilegalizazioa gauzatu denean.

Baina ikusiaz zer nolako giroa zegoen, ilegalizazioa atzo ez bazen gaur emango zela, proposamen hori mantentzeak ez zuela logikarik ikusi dugu. Egoera salatu eta gero, erretiratu egin dugu ez-legezko proposamen hori.

Honekin batera, Juan Joxe Ibarretxe lehendakariarekin, Izaskun Bilbao Legebiltzarreko lehendakariarekin eta talde parlamentarioekin bilera-erronda bat egitea eskatu genuen. Batez ere, ilegalizazioaren aurrean euren jarrera ezagutzeko.

Eta egia esan, ez genuen sorpresa handirik hartu.

> **ITZIAR BASTERRIKA**
>
> "Alderdien Legearen kontra azaltzeaz gain, gehiago egin behar dela adierazi diogu lehendakariari"

**N. Egin da erronda hori, beraz.**

**I. B.** Parlamentuko lehendakari Izaskun Bilbaorekin bildu ginen lehendabizi eta oso kaxkarra izan zen emaitza. PPrekin ez baina gainontzeko talde parlamentarioekin bildu gara. Hirukoa ordezkatzen duen taldeak gure aldeko aldarrikapen bat egiteko borondatearekin ikusi genuen. Euren esku utzi genuen

zer nolako atxikimendua egingo zuten.

Lehendakariarekin ere bildu ginen (otsailaren 1ean) eta tentsio handikoa izan zen bilera. Gobernuaren izenean ilegalizazioa salatu dutela adierazi zigun; hitz politak bai baina askoz gehiago egin zitekeela erantzun genion guk (EHAKko kideek). Behin eta berriz Alderdien Legearen kontra azaldu bai baina gehiago egin behar dela adierazi genion.

## ITZIAR BASTERRIKA

"Gu isiltzeko modu bakarra erasoa, erasoa eta erasoa izan da"

**N. Herritarrei mobilizazioetara deitu eta alderdiei, ilegalizazioa salatzeaz aparte, urrats gehiago emateko eskaera egin diezue. Legebiltzarrean dauden alderdiek zer egin dezakete, hori gehiago zehaztu al daiteke?**

**I. B.** Guk proposamen zehatzik ez dugu egin. Iruditzen zaigu talde bakoitzaren baitan dagoela zer nolako erantzuna eman behar duen egoera honen aurrean. Gure ustez, asko hitz egiten da ilegalizazioaz. Alderdien Legearen aurka daude ia denak, baina praktikan ere hori demostratu egin behar da. Teoria eta praktika ez doaz bat. Ze Madriletik datozen agindu guztiak EAJ-PNVk bete egiten ditu isil-isilean. Hori utzi nahi dugu agerian. Udaletxeetako karguak hartzerakoan, esate baterako, planto bat egiteko aukera zeukan (EAJ-PNVk), "aurka nago eta ez dut udaletxea osatuko" esanez. Hori egiterik bazen. Eta zilegia litzateke gainera.

**N. Erabaki honek ondorio zehatz bat izango du epe laburrean: EAE-ANVk ezingo du hauteskundeetara aurkeztu.**

**I. B.** Beraiek beti esaten dute estatu demokratiko batean gaudela, eta argi dago inondik inora ez gaudela estatu demokratiko batean. Demokratikoki ezin da onartu talde politiko bat edo ideia politiko batzuk defendatzen duen sektore bat isilarazi nahi izatea. Argi dago demokrazia hori ez dela ulergarria. Azken finean, herri honetarako dugun planteamendua ez digute aurrera eramaten utzi nahi.

Borroka horretan sutsu eta sendo defendatzen garela ikusi dutenean, eta aurrera ateratzeko ahalmena dugula ikusi dutenean, izutu egin dira eta gu isiltzeko modu bakarra erasoa, erasoa eta erasoa izan da. Hemen gatazka politiko bat dago eta hori konpontzen ez dugun bitartean, alferrikako lanean gaude. PSOEk hori ez du ikusi nahi. Badirudi Loiolako hitzarmen horretan, gauzak sinatu behar zirenean izutu egin zirela eta atzera egin zutela. Hori diote han egon zirenek.

**N. Ilegalizazioek, atxiloketek edota erabaki judizialek eragin zuzena izan dute herri honetan. Aitzaga elkartearen egoitza bi urtez itxita, Marisa Alejandro Batasuneko kidea kartzelan, 18/98 auziarengatik Olatz Altuna espetxean, laster auzitarako bidean izango da Joan Mari Torrealdai Egunkariaren kasuarekin…**



ALDERDIAREN JARDUERA ETEN DUTEN ARREN, PARLAMENTARI KARGUA MANTENDUKO DU ZUBIETARRAK.

**I. B.** Ezker abertzaleko edozein kide kartzelan sartzen dutenean, ezker abertzalearen aldarrikapena ozenki plazaratzen da herri honetan. Baina atxilotua den pertsona hurbilekoa denean, askoz gehiago hunkitzen zaitu atxilotze horrek. Olatzen kasuan gainera, lagun baduzu, oraindik handiagoa da sentimendu hori (Itziar hunkitu egin da, malkoak azaldu dira bere begietan eta une batez ezin du elkarrizketarekin jarraitu). Bere delitu bakarra herri honen aldarrikapenak eta eskubide sozial guztiak aurrera eramatea izan da. Zubieta, bere neurrian, bolkatu egin da. Eta berari babes horren berri iritsiko zitzaiola uste dut.

IMANOL UBEDA

## "Argeleko prozesutik hona bide bat jorratu da"

**Politika fikzioa egiteko eskatuko dizugu. Hautes-kundeak eta gero, bizi dugun tentsio-egoera hau luzatu egingo da ala ez?**

**Itziar Basterrika.** Argeleko prozesutik hona (1989) bide bat jorratu da. Loiolan (2006) badirudi erabaki batzuk hartu zirela eta zehaztasunak egiteko garaia iritsi zenean hautsi egin zela mahai hori. Baina oinarri batzuk finkatu ziren. Hori azpimarratzekoa da. Gaur egun, akaso egoera ez da negoziazio bati ekiteko egokiena, baina noizbait berriz hasiko balitz negoziazio prozesu bat, Loiolako mahai horretatik abiatuko litzateke. Lurraldetasuna eta erabakitzeko eskubidea finkatzera iritsi baziren, hori bada zerbait.

Galderari erantzunez, martxoaren 9ko hauteskundeak eta gero, erasoek jarraituko dutela uste dut. Baina noizbait eman beharko zaio buelta egoerari. Dena den, historiak erakutsi du ezker abertzalea erasotua izan dela behin eta berriz eta hala ere altxa egin dela. Orain ere erasotuak gara baina altxatuko gara. Gu ez bagara, atzetik etorriko dira beste batzuk. Horretaz ere konturatu dira.

# Martxoaren 9ko hauteskundeetan, hautes-mahaiak jarriko dituzte lehen aldiz Santuenean eta Aginagan

**Dagoeneko gauza jakina denez, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak martxoaren 9an egingo dira. Aurten, lehen aldiz, bi hautesleku gehiago izango dira. Honi esker, Santuenea eta Aginagako herritarrek ez dute kaxkora etorri beharko.**

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, guztira, bederatzi mahai jarriko dira eta horretarako bost gune egokituko dira: Udarregi ikastola, Santueneko Zahar Egoitza, Kalezarreko Haur Eskola, Aginagako Herri Ikastetxea eta Zubietako Lanbide Eskola.

Hautes-mahaietan izango diren herritarren izenak ere zehaztu dira. Lehengo astean, ez ohiko eta premiazko udalbatza plenoa egin zen eta bertan zehaztu ziren hautes-mahaietan izango diren herritarrak.

## Guztira bederatzi mahai jarriko dira

KAXKOAN, HIRU MAHAI
**Udarregi ikastolan**
**(Gernika Ibilbidea, 11)**
001 Ataleko A mahaia (A-K abizenak)
001 Ataleko B mahaia (L-Z abizenak)
004 Ataleko U mahaia (A-Z abizenak)

SANTUENEAN, BI MAHAI
**Gure Elkartea, Zahar Egoitzan**
**(Santuenea auzoa, 11)**
002 Ataleko 01 A mahaia (A-K abizenak)
002 Ataleko 01 B mahaia (L-Z abizenak)

KALEZARREN, BI MAHAI
**Haur Eskolan (Kalezar auzoa)**
003 Ataleko 01 A mahaia (A-K abizenak)
003 Ataleko 01 B mahaia (L-Z abizenak)

AGINAGAN, MAHAI BAT
**Herri Ikastetxean (Erriberako kalea, 7)**
002 Ataleko 02 C mahaia (A-Z abizenak)

ZUBIETAN, MAHAI BAT
**Lanbide Eskolan (Zubieta auzoa 9)**
003 Ataleko 02 C mahaia (A-Z abizenak)



BOST HAUTESLEKU JARRIKO DIRA MARTXOAREN 9AN.

# Hauteskunde sindikalak egin berri dira Luzuriagan

Otsailaren 6an egin ziren hauteskunde sindikalak Fagor Ederlan, V. Luzuriaga lantegian.

Aurrerantzean ere, CCOO izango da enpresa komitean delegatu gehien izango dituen sindikatua, bost ordezkarirekin. LAB sindikatua izango da bigarren indarra, hiru delegaturekin. Duela lau urteko emaitzekin alderatuz, LABek delegatu bat gehiago izango du aurrerantzean.

UGTk beste bi delegatu izango ditu (duela lau urte baino bat gutxiago).

ELA sindikatuak boto gehixeago jaso arren, duela lau urteko ordezkaritza izango du enpresa komitean, bi delegatu.

Azkenik, ESK sindikatuak ordezkari bakarra izango du (duela lau urte, ordea, bi ziren ESKren delegatuak komitean).

| | ESPEZIALISTAK | | | | ADMINISTRARIAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | BOTOAK | | DELEGATUAK | | BOTOAK | | DELEGATUAK | | KOMITEA | |
| | 2004 | **2008** | 2004 | **2008** | 2004 | **2008** | 2004 | **2008** | 2004 | **2008** |
| LAB | 38 | **52** | 1 | **2** | 12 | **16** | 1 | **1** | 2 | **3** |
| CCOO | 96 | **112** | 3 | **4** | 19 | **18** | 1 | **1** | 4 | **5** |
| UGT | 70 | **64** | 3 | **2** | 6 | **0** | 0 | **0** | 3 | **2** |
| ELA | 29 | **35** | 1 | **1** | 35 | **35** | 1 | **1** | 2 | **2** |
| ESK | 57 | **24** | 2 | **1** | 6 | **0** | 0 | **0** | 2 | **1** |
| Komitea | | | 10 | **10** | | | 3 | **3** | 13 | **13** |

**Victorio Luzuriaga Hauteskunde sindikalak**

| | ESPEZIALISTAK | | ADMINISTR. | |
|---|---|---|---|---|
| **Urtea** | 2004 | **2008** | 2004 | **2008** |
| **Zentsoa** | 302 | **322** | 94 | **92** |
| **Botoemaleak** | 292 | **291** | 80 | **69** |
| **Nuloak** | 1 | **2** | 0 | **0** |
| **Zuriak** | 1 | **2** | 2 | **0** |

# Sagastien landaketari buruzko ikastaroa, Alkartasuna Kooperatibaren eskutik

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba Elkarteak 100 urte betetzen ditu aurten. Urteurrena gogora ekarriz, hainbat ekitaldi jarri dituzte martxan: hitzaldiak, ikastaroak eta baita jaialdi eder bat ere. Alkartasunatik jakinarazi digutenez, ikastaro eta hitzaldi guztiak doan izango dira. Lehenengo hitzaldi-ikastaroa sagastien landaketari buruzkoa izango da.

Landaketa ikastaro honetan, "Barietateak eta txertaketa" izeneko hitzaldia eskainiko da lehen lehenik. Ondoren, neguko kimaketa ikastaro praktikoa egingo da, inguruko sagasti batean.

Hitzaldia otsailaren 23a larunbata izango da, goizeko 9:30etik aurrera, Usurbilgo Sutegi kultur aretoan. Aitor Etxeandiak eskainiko du Alkartasunak antolatu duen hitzaldia.



Ikastaroa otsailaren 23an egingo da Sutegin.

# Hauxe izango da 2008ko udal zerga egutegia

**Usurbilgo Udalak 2008. urterako zerga egutegia onartu du. Ordainketak egiteko, ondorengo epeak zehaztu dira.**

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga.** Martxoaren 1etik maiatzaren 2ra arte.

O. H. Z. (**Ondasun higiezinen zerga, kontribuzioa, landa eta hiri izaerakoak**). Maiatzaren 15etik uztailaren 4ra.

E. J. Z. (**Ekonomi jarduera zerga**). Urriaren 1etik azaroaren 10era bitartekoa.

**Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa).** Irailaren 1etik urriaren 1era arte.

Aurrez aipatu erroldetako erreziboak helbideratutako errezibuak epe bukaeran kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean.

**Ura, estolderia eta zaborra, hiruhilabeteroko erroldak:**

4.go hiruhilabetea: (2007): Otsailaren 1etik martxoaren 15era.

1.go hiruhilabetea: ekainaren 1etik uztailaren 15era.

2.go hiruhilabetea: irailaren 1etik urriaren 15era.

3.go hiruhilabetea: azaroaren 1etik abenduaren 15era.

Helbideraturiko agiriak borondatezko epearen amaierako hilabetearen aurreneko egunean kobratuko dira.

**Asteroko merkatuaren erabilpen tasa:**

1.go hiruhilabetea: apirilaren 1etik apirilaren 30era.

2.go hiruhilabetea: uztailaren 1etik uztailaren 30era.

3.go hiruhilabetea: urriaren 1etik urriaren 30era.

Errolda fiskalek biltzen dituzten agiriak, likidazioak ez direnez, agiriak kolektiboki jakinaraziko dira, helbideratu gabe dauden kasuan komunikazio agiriak korreo arruntaren bidez bidaliko direlarik.

Obra baimenaren zergak, Jarduera irekiera zerga... Tokiko Gobernu Batzarrak edo Alkatetza Dekretu bidez hartutako erabakiarekin batera dagokion kitapen edo likidazioa jakinaraziko da zergadunaren helbide fiskalera, bertan adierazten den epean ordainketa egin dezan interesatuak.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan premiamendu bidezko jardubideari ekingo zaio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotek dagokion gainkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.

## Kontribuzioan hobariak familia ugarientzat

Usurbilgo Udalak kontribuzioari buruzko zerga onartu du, familia ugarientzat hobaria onartuz. Interesatuek informazioa udaletxeko zergabilketa sailean eska dezakete.

Hobariaz baliatzeko baldintza formalak:

- Aplikazioaren zerga aldiari dagokion sortze egunean, urtarrilaren 1ean, familia ugariaren titular izaera daukaten hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren subjektu pasiboek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:
- *Interesdunaren eskabidea, Udalak erraztuko du eredua.
- *Familia Ugarien tituluaren fotokopia konpultsatua.
- *Udalak urtarrilaren 1ean familia unitateko kideak erroldatuak daudela egiaztatuko du.
- * Ohiko etxebizitzaz gain, beste etxebizitza bat jabetzan izan ezkero ez da hobaririk aplikatuko.
- *2008rako bideratzen den eskaerak , famili ugariaren titulua iraungi bitartean izango du eragina, beti ere Udalak ofizioz ordenantzatan onartuko liratekeen aldaketak aplikatuko dituelarik.

Hobariaren eskaera 2008ko otsailaren 28a baino lehen egin beharko da.

# DBH 2 mailakoak, Aralar mendikatean

**Azaroan Aralarren izan ginen DBH 2.mailako ikasleek. Aralar Nafarroako Lekunberri herriaren inguruko mendikate bat da.**

Guarda-etxetik abiatu eta han ibili ginen bertako pagadian hostoen "krix-krax" entzunez, mapa eta iparrorratzaren laguntzaz OTADIko trikuharria topatu genuen. Bidean perretxikoak jaso, argazkiak atera,...

Ondoren TTUTTURRE mendia, kosta ala kosta igo genuen (1.232m.) eta nahiz aldapa gogorra izan, merezi zuen. Hango puntatik Gaintza, Azpiroz, Betelu, Errazkin,... herriak ikusten ziren, bertso bat idatzi eta buzoian utzi, argazki batzuek atera eta, beheko zelai eder batetara bazkaltzera jaitsi ginen.

Gehien gustatu zitzaiguna, bazkal ondorengo momentua izan zen artzaien jokoak egin baikenituen: lehenengo, txintxina, makil jokoa, oso polita zen, gero korrika apustuak eta azkenik, gorputz jaurtiketak: talde guztia bi ilaratan jarri, besoak aurrekoari heldu eta kide bat gora botaz, ilara osoa pasatzen zuen.

Ordu bete inguru ibili ondoren, autobusera iritsi ginen. Oso esperientzi ona izan zen, gauza asko ikasi genituen eta paisaia oso politak ikusiz, ederki igaro genuen eguna. Gainera eguraldiak lagundu zigun, baina oso nekatuta iritsi ginen.





ARALARRERA EGINDAKO IRTEERAREN IRUDIAK.

## Izaro Asteasuinzarra kartel lehiaketa batean garaile

Izaro Asteasuinzarra DBH 4.mailako ikasleak aipamen berezia eta 60 eurotako saria jaso ditu Donostiako Santo Tomas Lizeoak antolatu duen XXIV. Mari Karmen Alzueta kartel lehiaketan.

## Inauterietako argazkiak, ikastolaren webgunean ikusgai

Ikastolako ikasleek Inauterietako kalejiran hartu zuten parte. Festa kiroldegian amaitu zen. Argazkiak www.udarregi.com webgunean aurkituko dituzue.

## Udako kanpaldietarako begiraleak behar ditu Ikastolen Elkarteak

**Ikastolen Elkartea, urtero bezala, udako kanpaldietarako begirale bila hasi da. Emailez igorri digun eskaeraren arabera, hauek dira betebeharreko baldintzak: euskalduna izatea, 18 urte beteta izatea eta aisialdian esperientzia izatea.**

Izen emateko epea, apirilaren 1ean amaituko da eta begirale izateko gazteek bete behar dituzten baldintzak hauek dira:

-Euskalduna izatea.
-18 urte beteta izatea.
-Aisialdian esperientzia izatea.

Kontutan hartuko dira baita ere, ikasketak, begirale titulua eta bestelako gaitasun pertsonalak.

Informazio guztia honako webgunean aurkituko duzue:
www.bieikastola.net

Bertan agertzen den begirale fitxa jaitsi, bete eta helbide elektroniko honetara bidali behar da:
bie@ikastola.net

# Hernaniko kiroldegia, Burutzaldeko eskaintzatik kanpo?

**Azken urteetan Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Hernaniko udalerriek kirol zerbitzu mankomunatuak eskaini dituzte Buruntzaldean. Baina antza denez, etorkizun hurbil batean eten egin daiteke zerbitzu hori. Bereziki, Hernanikoari dagokionez.**

Izan ere, 2007ko abenduaren 20an egin zen ez ohiko udal batzarrean, Hernaniko udal ordezkariek ahobatez Buruntzaldeko kiroldegien arteko hitzarmena salatzea erabaki zuten. Zehazteko dago zertan eragingo duen erabakiak, eta erabiltzaileen artean bada kezka nagusia: Usurbilgo kiroldegiko txartela duten erabiltzaileei Hernanikoa erabiltzea galaraztea.

### Erabakia ez dago indarrean

Hernaniko udalbatzaren erabakia dagoeneko Hernaniko Udalaren webgunean eskegita dago. Andoaingo Allurralde kiroldegiko arduradunek albistea baieztatu dute baina oraindik ere hartutako erabaki hori ez dela indarrean jarri gaineratu dute. Oraindik ere, beraz, usurbildarrek Hernaniko kirol instalazioak erabil ditzakete eta, alderantziz, hernaniarrek Usurbilgoak.



HERNANIKO UDALA EZ DAGO POZIK BURUNTZALDEKO KIROLDEGIEN ARTEKO HITZARMENAREKIN.

### Buruntzaldeko herrien arteko hitzarmena ez da hautsiko

Udal erabakia formala bada ere, oraindik ez da indarrean jarri. Hernanik hartzen duen behin betiko erabakiaren harira, Buruntzaldeko Kirol Patronatuek bere iritzia zein den jakinaraziko dute. Kiroldegietako arduradunek oso argi dute Buruntzaldeko hitzarmena ez dela hautsiko. Akaso Hernani bere kabuz irtengo da baina beste herrien arteko konpromisoari orain arte bezala eutsiko zaio.



## Eskubaloi taldearen sariak badu irabazlea

Bi pertsonentzat afaria Atxega jauregian. Hori da Usurbil KE eskubaloi taldeak egindako zozketan Jose Mari Sarasolak irabazi duen saria. Izango dira zozketa gehiago, izan ere, eskubaloi taldekoek tarteka horrelako zozketak egiten dituzte. Honakoan, Usurbil KE taldeak Atxega jauregiaren ahalegina eskertu nahi du.

Kirol emaitzei dagokionez, hiru partida jokatu ziren eta beste hiru bertan behera geratu ziren. Kadete mutilek 47-26 irabazi zuten, Jauja taldearen aurka. Jubenil mailan, Egiari gailendu zitzaion 33-40 emaitzarekin. Eta senior 2. Territorial mailan, Usurbil KE taldeak 25-23 irabazi zion BKL taldeari.













## Agenda !!

**Otsailak 15 ostirala**
- "**Usurbilgo pasarte historikoak, DVDaren emanaldia**". Sutegin, gaueko 22:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak.

**Otsailak 17 igandea**
- "**Izotz Aroa 2" pelikula.** Arratsaldeko 17:00etan Sutegin.

**Otsailak 20 asteazkena**
- **Joxe Ramon Mauduit, "Usurbil, haurren herria"** hitzaldia. Arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

**Otsailak 22 ostirala**
- **IT txartela eskuratzeko azterketa KzGunean.** 9:00etatik 11:00etara. 943 36 14 12.

**Otsailak 26 asteartea**
- "**Mugarik gabeko hirian**" filma eta oroimena galtzeari buruzko hitzaldia Amaia Zulaikaren eskutik. Gazteleraz, arratsaldeko 16:00etan Sutegin.

**Otsailak 27 asteazkena**
- **Kultura Aholku Batzordea**ren bilera. 19:00etan udaletxean.

**Otsailak 29 ostirala**
- "**Loreak mendian, hondakinak lurpean eta bideak gainean**", antzerki saioa Sutegin. Donapaleu Antzerki Taldeak Mattin Irigoienek idatzitako antzerkia eskainiko du. Gai sozialak lantzen dira antzerki honetan: alde babetik Pirinioetako 2x2 autobidea eta, bestetik, transgenikoena. Bi bertsolari ere izango dira antzerki saio honetan.

Ordua: gaueko 22:30ean. Taldea: Kitxikazank. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea. Sarrera: takilan, 5 euro.

# "Nabil" diskoa, Amaia Zubiriaren berriena

Lan berriarekin, errepertorio klasikoari heldu dio Amaia Zubiriak, bereziki, Iparraldeko tradizioa gogora ekarriz: "Maitia nun zira", "Amodioa zoin den zoroa", "Ura isuririk", "Goizean argi hastean", "Nik badut maiteño bat", "Kalla kantuz", "Adios izar ederra", "Prima ejerra"... "Donostiako hiru damatxo" eta "Ama ezkondu" kantuak ere jaso ditu lan berri honetan. Hori gutxi balitz, historikoak izan diren bi kantariren bertsioak egin ditu: Lourdes Iriondoren "Hala ere" eta Estitxuren "Ave Maria" ezagunak.

### 30 urtez musikan

Amaia Zubiria Zubietan jaio zen 1947an. Etxean aurkitu omen zuen kanturako giroa eta zaletasuna.

Haizea taldearekin egin zen ezagun, 1977 urtean. Dagoeneko, beraz, hiru hamarkada egin ditu musikaren munduan.



IPARRALDEKO TRADIZIOAN ERREPARATU DU AMAIA ZUBIRIAK.

Haizearekin aritzeaz gain, hainbat disko plazaratu zituen Txomin Artolarekin, beste hainbat Pascal Gaignerekin, horien artean "Egun argi hartan" izenekoa, 1985an. Eta bakarka ere, hainbat lan argitaratu ditu. "Nabil" diskoarekin kantuaren plazara itzuli da berriz ere Amaia Zubiria kantaria.

# Igande honetan, "Izotz Aroa 2" filma Sutegin

Duela hogei mila urte, izoztuta ez hiltzearren, munduan bizi diren izaki guztiak hegoalderantz joko dute. Manfred mamuta, Sid hartza alferrontzia, Diego tigrea eta Scrat urtxintxa ezkur-zalea izan ezik. Hori da igande honetan Sutegin euskaraz ikus ahal izango den pelikularen mamia. Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai, 2 eurotan.


OTSAILAREN 17AN IGANDEA, 17:00ETAN HASIKO DA PELIKULA.







### ETXEBIZITZA

-Usurbilen 3 logelatako etxebizitza alokatzen dut. Abala eskatzen da. 943373481.
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
-75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- San Esteban kaleko 13 zenbakian 4. solairuko etxe bat daukat alokatzeko. Ez dauka igogailurik. Kontaktuan jartzeko: 943362088
- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin Usurbilen, 639370633 (Bixen).
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
-Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Gela bat alokatzen zaio gizonezko langile bati. 250 euro/hilabetean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta arropen garbiketa barne. 687348223.
-Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

-Usurbilen33 metro karratutako garaje bat alokatzen dut. Sarrera handiarekin, biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. Ura eta argia dauzka. 943373481.
- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volswagen Transporter Shuttle 2.5 TDI, 130 zaldikoa salgai. 2005eko abuztukoa. Gris ilun kolorekoa. Lo egiteko prestatua, gortinak, toldoa eta hozkailua... 687571009.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Extra asko. Ruben. 609408401.
-Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
-Neska euskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

#### Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

-Erregeek telebista modernoa ekarri badizue eta zaharra botatzeko asmorik badaukazu, neurekin kontaktuan jarri: bila joango nintzake: 675 71 72 67. Diru pixka bat ordaintzeko prest nago ere.
-Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatako beltz batekin. Aurkitu badituzu eskertuko dugu deitzea: 685 72 56 81.
-Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Julen!** Etxeko pottoloak 3 urte beteko ditu otsailaren 14an. Ondo-ondo pasa eta muxu handi bat!



**Zorionak Nahia!** Otsailaren 19an urte bete egingo duzu, Zorionak eta muxu pila, pila, pila... Zuhaitz, aitatxo eta amatxoren partez.



**Zorionak Inaxi!** Jaso ezazu zure familiaren partez zorion agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula bihotz-bihotzez.

## JAIOTZAK

**Unai Sarasua Galan**
Otsailaren 5ean jaio zen.

**Aixa Iglesias Carrasco**
Otsailaren 2an jaio zen.

**Inge Mutiloa Vidal**
Urtarrilaren 26an jaio zen.

## HERIOTZAK



**Eugenio Campoo Hoyos**
Otsailaren 6an hil zen
67 urte zituela. Kaleberri.



**Juan Olasagasti Bengoetxea**
Otsailaren 3an hil zen
80 urte zituela. Kaleberri.



**Manuela Manzano Balsera**
Otsailaren 5ean hil zen
76 urte zituela. Santuenea.



**Julian Encinas Ormazabal**
Otsailaren 9an hil zen,
74 urte zituela. Kalezar.




# MARTXOAK 8, LARUNBATA

## 20:00 SUTEGI KULTUR ETXEKO AUDITORIOAN

SARRERAK ALDEZ AURRETIK EROSITA 10€ ( TXIRRISTRAN ETA NOAUA!KO EGOITZAN SALGAI ). EGUNEAN BERTAN 12€. NOAUA!KO BAZKIDEEK 8€TAN EROSI AHAL IZANGO DUTE NOAUA!KO EGOITZA ALDEZ AURRETIK.

antolatzailea Noaua!! www.noaua.com Usurbilgo Udala laguntzailea

# TXOTX!!



AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


Aginaga
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com